# Akta

**UDAL OSOKO BILKURA** SESION PLENARIA MUNICIPAL

**TOKIA / LUGAR:** Udaletxea
**EGUNA / FECHA:** 2018/01/31
**HASIERA / INICIO:** 19:00
**AMAIERA/FINAL:** 20:00

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA/EL ALCALDE:**
Aitor Aretxaga Telletxea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Iñaki Inzunza Urrutia (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ohikoa / Ordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

| | |
|---|---|
| Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkate jauna eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.<br>Alkate Jaunak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita: | En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.<br>De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos: |
| **1.- Aurreko saioko akta.-** | **1.º.- Acta de la sesión anterior.-** |
| Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen 2017ko abenduaren 27ko saioko akta onartzea. | El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 27 de diciembre de 2017. |
| **2.- Alkatetza Dekretuak.-** | **2.º.- Decretos de la Alcaldía.-** |
| Osoko Bilkurari ondoko alkatetza-dekretuen berri eman zitzaion:<br>- 48/17, zeinaren bidez onartzen den kredituak aldatzeko espedientea, kreditu-gaikuntza araubidearen bidez, 1.725,00 €-an.<br>- 1/18, zeinaren bidez 1/2018 espedientearen hirigintza-baimena onartzen den.<br>- 2/18, zeinaren bidez 62/2017 espedientearen hirigintza-baimena onartzen den.<br>- 3/18, zeinaren bidez behin-behineko aparkaleku-txartela ematen den, urtebeterako.<br>- 4/18, zeinaren bidez 36/2017 espedientearen hirigintza-baimena ukatzen den.<br>- 5/18, zeinaren bidez 5/2018 espedientearen hirigintza-baimena onartzenn den. | El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la alcaldía:<br>- N.º 48/17, por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos mediante el régimen de habilitaciones de crédito por importe de 1.725,00 €.<br>- N.º 1/18, por el que se concede licencia urbanística del expediente 1/2018.<br>- N.º 2/18, por el que se concede licencia urbanística del expediente 62/2017.<br>- N.º 3/18, por el que se concede tarjeta de estacionamiento provisional por periodo de un año.<br>- N.º 4/18, por el que se deniega licencia urbanística del expediente 36/2017.<br>- N.º 5/18, por el que se concede licencia urbanística del expediente 5/2018. |
| **3.- San Antonioko enklabearen ezabaketa.-** | **3.º.- Supresión del enclave de San Antonio.-** |
| Osoko Bilkurari jakinarazi zitzaion zein urrats egin behar diren San Antonioko enklabe ohia Busturian txertatzeko (zerbitzuen ardura, komunikazioak beste erakunde batzuekin, egindako bilerak, etab.).<br>Zerbitzuak emateagatiko tasen Zerga Ordenantza arautzailearen egokitzapenari dagokionez (egun ez baitu jasotzen zabor-bilketa BBKren Haurrentzako Udalekuak deritzon zentroan), Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen zerga-egitate hori zerga-araudian txertatzea eta, ondorioz, Toki Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluaren eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen | El Ayuntamiento Pleno fue informado de los pasos dados para hacer efectiva la integración del antiguo enclave de San Antonio en Busturia (asunción de los distintos servicios, comunicaciones con otras instituciones, reuniones mantenidas, etc…).<br>En cuanto a la adaptación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por prestación de servicios (que no contempla actualmente la recogida de basuras a un centro como las Colonias Infantiles de BBK), el Ayuntamiento Pleno tomó la decisión de introducir ese hecho imponible en la normativa fiscal y, en consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el |

apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluaren arabera:
1.- Behin-behinean onartzea zerbitzu publikoak emateagatiko eta ekonomia-jarduerak egiteagatiko tasen Zerga Ordenantza arautzailean ondoko aldaketa egitea.
A.- ETXEZ ETXEKO BILKETA
Zortzigarren Epigrafea:
Ikastetxe pribatuak:
— Baserri-eskola: 12.790,51 euro urtean.
2.- Jendaurrean jartzea 30 egunez, interesdunek espedientea aztertu ahal izateko eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkezteko. Horretarako, iragarki-taulan, udal-webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarriko da.
3.- Jendaurreko epea bukatutakoan, dagozkion behin betiko akordioak egingo dira: erreklamaziorik aurkeztu balitz, ebatzi egingo dira, eta behin-behineko akordioan jasotako aldaketen idazkera onartuko da; erreklamaziorik ez balego, akordioa behin betiko onartutzat joko da, Osoko Bilkuraren akordioa behar izan gabe.
4.- Aurreko atalean aipatu behin betiko akordioak, automatikoki halako bihurturiko behin-behinekoak barne, bai eta aldaketen testu osoa, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta, hori gertatu arte, ez dira indarrean sartuko.

artículo 16 de la Norma Foral 9/2005, reguladora de las Haciendas Locales, y 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, acordó, por unanimidad:
1.- Aprobar provisionalmente la siguiente modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la prestación de los servicios públicos y realización de actividades económicas.
A.- RECOGIDA DOMICILIARIA
Epígrafe Octavo:
Centros enseñanza privada:
— Granja-escuela: 12.790,51 euros/año.
2.- Exponerla al público por plazo de 30 días, dentro de los cuáles los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas; la publicación se efectuará mediante el tablón de anuncios, página web municipal y en el Boletín Oficial de Bizkaia.
3.- Finalizado el período de exposición pública, se adoptarán los acuerdos definitivos que procedan, resolviendo las reclamaciones que se hubieran presentado y aprobando la redacción de las modificaciones a que se refiera el acuerdo provisional. En el caso de que no se hubieran presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.
4.- Los acuerdos definitivos a que se refiere el apartado anterior, incluyendo los provisionales elevados automáticamente a tal categoría, y el texto íntegro de las modificaciones, serán publicados en el Boletín Oficial de Bizkaia sin que entren en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.

**4.- San Antonioko hondartzako erabilera-araubidearen Ordenantza Arautzailea.-**

**4.º.- Ordenanza Reguladora del régimen de utilización y usos en la playa de San Antonio.-**

Kontuan hartuta Batzorde Informatzailearen irizpena, Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen:
LEHENA.- Behin-behinean onartzea San Antonioko hondartzako erabilera-araubidearen Ordenantza Arautzailea.
BIGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea, eta interesdunei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko entzunaldia eskaintzea, gutxienez 30 egunez, akordio hau Udalaren webgunean, Ediktu-taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluaren eta Herri Administrazioen Administrazio

Visto el dictamen de la Comisión Informativa, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:
PRIMERO.- Aprobar con carácter provisional la Ordenanza Reguladora del régimen de utilización y usos en la playa de San Antonio.
SEGUNDO.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de 30 días para la presentación de reclamaciones y sugerencias, mediante publicación de este acuerdo en el portal web del Ayuntamiento, en el Tablón de Edictos y en el Boletín Oficial de Bizkaia, conforme a lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y artículo

Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2. artikuluaren arabera.
HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, Ordenantza automatikoki joko da behin betikotzat onartua, eta haren testu osoa Udalaren webgunean, Ediktu-taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da; horrez gain, akordioa eta Udal Ordenantzaren behin betiko testua Gobernu Ordezkaritzara eta Autonomia Erkidegoko dagokion organora igorri beharko dira, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.
Testua osatzen duten artikuluak eztabaidatu zirenean, xehetasunez aztertu zen hondartzan animaliak egoteari buruzkoa (7. artikulua); beste udalerri batzuetako ordenantzak aztertu ostean, bitarteko konponbide bat aukeratu zen, alegia, ez debekatzea erabat, baina ez baimentzea beti: neguan, ez da inolako mugarik izango; udan, ordea, gauaz baino ezingo da eraman animaliarik, orduan hondartza hutsik egoten delakoan.
Ruiz andreak adierazi zuen bere ustez ordenantzak hondartzan txakurrak egotea baimendu beharko lukeela, eta proposatu zuen haientzako berariazko eremuak ezartzea; bestela, txakurren jabeek ezin dituzte itsasoan bainatu.
Gainerako zinegotzien ustez, badute kostaldeko beste eremu batzuetan paseatzea eta bainatzea txakurrekin; gainera, animaliek garbiketa-lanak zail ditzakete; eta, azkenik, pertsona batzuek txakurrak maite dituzte, baina beste batzuentzat deserosoak edo beldurgarriak dira.

133.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
TERCERO.- En el supuesto de que no se presentaran reclamaciones, la Ordenanza se considerará aprobada definitivamente de forma automática, debiendo publicarse el texto íntegro en el portal web del Ayuntamiento, en el Tablón de Edictos y en el Boletín Oficial de Bizkaia y darse traslado del acuerdo y del texto definitivo de la Ordenanza Municipal a la Delegación del Gobierno y al órgano correspondiente de la Comunidad Autónoma, para su conocimiento y efectos oportunos.
Durante el debate del articulado se analizó con detalle la regulación de la presencia de animales en la playa (artículo 7) y, después de analizar las ordenanzas de otros municipios, se optó por una solución intermedia que no suponga la prohibición absoluta ni la tolerancia total, estimándose que en época invernal se permita de manera ilimitada, pero que en el periodos estival se limite únicamente al horario nocturno en el que se presume que la playa permanezca vacía.
La Sra. Ruiz manifestó que en su opinión la ordenanza debía permitir la permanencia de perros en la playa, proponiendo que se estableciesen zonas reservadas a ellos, ya que de otra forma se impide a los dueños de canes poder bañarlos en el mar.
El resto de concejales consideraron que había otras zonas costeras en las que podían pasear y bañar los perros, que la presencia de animales podía dificultar las labores de limpieza y que tal y como hay personas aficionadas a los perros, hay otras a las que les incomodan o aterrorizan.

**5.- Datuak elektronikoki partekatzeko hitzarmena.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Biscaytik Fundazioarekin sinatu beharreko berariazko Hitzarmena, hainbat zerbitzu jasotzeko (Jakinarazpen Elektronikorako Plataforma) Biscaytik proiektuaren baitan.
Hitzarmenaren xedea da Bizkaiko Udal eta Mankomunitateei hainbat zerbitzu ematea, aipatu azpiegitura informatikoaren bidez, haien barne-funtzionamendua eta herritarrei begira egin beharreko gestioak elektronikoki egin ahal izateko.

**5.º.- Convenio para intercambio electrónico de datos.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el Convenio específico con la Fundación Biscaytik para la adopción de determinados servicios (Plataforma de Notificación Electrónica), en el marco del proyecto Biscaytik.
La finalidad perseguida con el presente acuerdo es la de facilitar a Ayuntamientos y Mancomunidades de Bizkaia para que, a través de esta infraestructura informática, les sean prestados determinados servicios de tal forma que tanto su funcionamiento interno como sus gestiones con la ciudadanía puedan ser realizadas de forma electrónica.

**6.- Galde-eskeak.-**

**6.º.- Ruegos y preguntas.-**

Elorrieta jaunak eskatu zuen euskaraz jartzeko bidea moztuta dagoela adierazten duen seinalea, Udalak berak egindako lan batzuen ondorioz Gizarte Etxetik gertu jarri dena, hain zuzen.

El Sr. Elorrieta solicitó que se señalizase en euskera un aviso de camino cortado, que se ha colocado cerca del Gizarte Etxea como consecuencia de unas obras realizadas por el propio Ayuntamiento.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde

Aitor Aretxaga Telletxea

Idazkaria/El Secretario,

Víctor-Martín Amparan Álvarez